BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

HONDARRIBIKO UDALERRIKO ESPARRU PUBLIKOETAKO HIRI LURREAN, ESKOLA EREMUA ETA ABARRETAN DAUDEN BERDEGUNEA, PARKE ETA IBILBIDEETAKO ZUHAITZAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO, LANDA LURREAN DAUDEN BERDEGUNE, BASO EREMU, MENDI-BIDE ETA AUZO-BIDEETAKO EREMUAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO, ETA HARRESIETAKO HORMETAKO LANDAREDIA KENTZEKO.

2024ko IRAILA



ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Pliego de Condiciones Tecnicas

Que han de regir en el concurso para la contratacion de los trabajos de conservacion y mantenimiento de zonas verdes, parques, jardines y arbolados de paseos existentes en el Area Urbana, areas escolares y otros, zonas verdes, zonas forestales, senderos y caminos vecinales del Area Rural, así como la supresión de la vegetación del lienzo vertical de la Murallas y otros, en el Término Municipal de Hondarribia que tengan carácter público.

Septiembre 2.024.

Hondarribiko Udala

Esp.. Kod.: 2024K1150017

BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, HONDARRIBIKO UDALERRIKO ESPARRU PUBLIKOETAKO HIRI LURREAN, ESKOLA EREMU ETA ABARRETAN DAUDEN BERDEGUNE, PARKE, ETA IBILBIDEETAKO ZUHAITZAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO, LANDA LURREAN DAUDEN BERDEGUNE, BASO EREMU, MENDI-BIDE ETA AUZO-BIDEETAKO EREMUAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO, ETA HARRESIETAKO HORMETAKO LANDAREDIA KENTZEKO.

KONTRATUAREN XEDEA.

Baldintza Teknikoen Plegu hauetako xedea zera da, zehaztea zein ezaugarri zehatz bete behar dituzten Hondarribiko Udalerriko esparru publikoetako hiri lurrean, Eskola eremu eta abarretan dauden berdegune, parke, eta zuhaitzak zaindu eta mantentzeko lanak, landa lurrean dauden berdegune, baso eremu, mendi-bide, auzo-bide eta ibilbideetako eremuak zaindu eta mantentzeko lanak, eta harresietako hormak eta beste batzuk zaindu eta bertako landaredia eta belar txarrak kentzeko lanen egiteak.

Eremu ezberdinetan eta Ikastetxe bakoitzean egin beharreko lanak banaka aztertu eta zenbatetsi behar dira.

I. HIRI EREMUA

1 Zona.- Puntala eta Portua
2 Zona.- Akartegi, Zimizarga
3 Zona.- Mendelu, Amute eta Arkolla
4 Zona.- Hondarribiko Saihesbidea

II. LANDA EREMUA

1 Zona.- Ingurumena
2 Zona.- Ondare Historikoa
3 Zona. – Trafiko eta aparkalekuak

III. HONDARRIBIKO HARRESIAK

IV. IKASTETXE EREMUAK

1 Zona.- Talaia-Bordari Eskola
2 Zona.- Talaia-Satarka Eskola
3 Zona.- Talaia-Biteri Eskola
4 Zona.- Loraitz Haurreskola

V. PUNTALA

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Hondarribiko Udala

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

I. HIRI EREMUA

Hondarribiko Udala

I. HIRI EREMUA

KATEGORIAK ETA ESKU-HARTZE EREMUA.

1.1. KATEGORIAK.- Eremu bakoitzaren mantentze lana egiteko ondoko kategoriak ezarri dira:

A. Kategoria: Hiri eremuko berdeguneak eta zuhaitzak.
B Kategoria: Hiri eremuko berdeguneak eta zuhaitzak
C Kategoria: Hiri eremuko berdeguneak eta zuhaitzak
D Kategoria: Hiri eremuko bazterretako berdeguneak edo sasiak

1.2.- EREMU ETA AZALEREN ZERRENDA.- Udalerriko Hiri eremuko berdeguneak osatzen dituzten zonak eta horien azalera (gutxi gorabehera) ondokoak dira:

1 Zona.- Puntala eta Portua 31.775,20 m²

A. Kategoria: (3.297,00 m²)

1.A.1. Jabier Ugarte Parkea
1.A.2. Sabin Arana Goiri eta Irun Kalea
1.A.3. San Kristobal Plaza, Axular kalea, Bittoriano Juaristi kalea, eta Zuberoa kalea
1.A.4. Bernat Etxeapare Kalea
1.A.5. Santiago Kalea, San Pedro kalea eta Arrantzale Auzoa
1.A.6. Itsasargi, Matxin Artzu, Zuloaga eta Domingo Egia Kalea
1.A.7. Butron Pasealekua, Domingo Egia, Beleztarren Markesa, Irailak 7 eta Almirante Alonso kalea

B Kategoria: (25.945,80 m²)

1.B.1. Minasoroeta Kalea, Harresilanda kalea eta Damarri kalea
1.B.2. Zumardia
1.B.3. San Juan de Dios Plaza, Arraun Elkartea, eta Lapurdi Kalea
1.B.4. Lonja, Hendaia Kalea eta Nafarroa Behera Kalea
1.B.5. Molla Ibilbidea, Herri Bertan urbanizazioa, Txoriaren lorategia
1.B.6. Puntala Urbanizazioa
1.B.7. San Markos Parkea eta San Markos Txiki
1.B.8. Bidasoa Pasealekua
1.B.9. P. Muguruzako bidexka eta glorieta, eta Uranzu lorategia

C Kategoria: (1.493,00 m²)

1.C.1. Erribera Behera kalea eta erreka (kale estua)
1.C.2. P. Muguruzako ezponda

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Hondarribiko Udala

D Kategoria: (1.039,40 m²)

1.D.1. Uranzu lorategi gaineko ezponda

2. Zona.- Akartegi, Zimizarga: 92.149,50 m²

A. Kategoria: (2.292,40 m²)

2.A.1. Foru Kalea

B Kategoria: (46.326,70 m²)

2.B.1. Tximista eskailerak eta kalea, Biteri kalea, Presa Urbanizazioa, Jose Bergamin enparantza eta Muliate Urbanizazioa.
2.B.2. Zezen Plaza eta Errebellin
2.B.3. Jaizkibel Etorbidea - Haurtxo Politaren Parkea eta ondoko kalea
2.B.4. Saindua Kalea
2.B.5. Guadalupeko-Ama Parkea eta ondoko kalea
2.B.6. Soroeta Auzoa eta ondoko kirol gunea
2.B.7. Baserritar Etorbidea, Masti Kalea, Girizi kalea
2.B.8. Ttarrattenea, Oskarbi Kalea
2.B.9. Labreder Urbanizazioa eta kalea
2.B.10. Domingotxoenea, Kanposantua, Aspunea
2.B.11. Sokoa Parkea
2.B.12. Donosti Kalea, Iturri Berri Biribilgunea, Jose Olaizola Kalea, Lezo Plaza
2.B.13. Madalen Gain eta eskailerak
2.B.14. Soroetagain
2.B.15. Nestor Basterretxea, Asto Bidea, Errenteria Kalea
2.B.16. Mariñelen Itsasbidea eta Minatera kaleko aparkalekua (Polikiroldegi atzea)
2.B.17. Higer Bidea

C Kategoria: (38.343,60 m2)

2.C.1. Iterlimen – I
2.C.2. Eskailerak R. Iribarren-Higer Bidea
2.C.3. Pierre Landhe
2.C.4. Landak eta bidegorriak (bizikletetako pistak).
2.C.5. Higuer Itsasargia, Higerreko itsaslabarra, eta ur Araztegirako bide bazterrak
2.C.6. Goizut
2.C.7. Muliateko ezponda
2.C.8. Txiplao Industriagunea
2.C.9. Espigoia

D **Kategoria**: (5.186,80 m2)

2.D.1. Madalengaineko ezpondak

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Hondarribiko Udala

2.D.2. Arrantzale Auzoko atzeko ezponda (finkatutako eremua) eta Astobideako ezponda

3. Zona.- Mendelu, Amute eta Arkolla: 40.121,92 m²

B. Kategoria: (21.450,00 m²)

3.B.1. Gibeleta Kalea eta Zubieta etorbidea
3.B.2. Gibeleta Parkea
3.B.3. Mendelu Berra
3.B.4. Mendelu-Planetak
3.B.5. Amutalde Kalea
3.B.6. Amute
3.B.7. Komentuaurre
3.B.8. Komentuxtikiko Gaina eta Amuteko kirol gunea
3.B.9. Ipar Gabarrari eta Hego Gabarrari
3.B.10. Kosta Kalea
3.B.11. Txiplaoko erreka

C Kategoria: (16.797,80 m²)

3.C.1. Eskualdeko Ospitaleak N-1ekin bat egiten duen errepideko bazterrak.
3.C.2. Txingudi Ikastolara N-1etik joateko bideko bazterrak.
3.C.3. Mendelu-Planetako urmaela, erreka bazterra eta N-1
3.C.4. Amuteko urmaela eta errekako ezponda
3.C.5. Arrieskailleta, Llobregateko errepidea eta ondoko lursaila (Politenea eta Marikinea artekoa)

D Kategoria: (1.874,12 m²)

3.D.1. Santa Engrazia 20. Gure Kabia ezponda

4. Zona.- Hondarribiko Saihesbidea 18.620,60 m²

Esku-hartze eremuak aurreikusten ditu biribilguneak eta oinezkoen babesguneak, baita Hondarribiko Saihesbidea osatzen duten errepide zatietako bazter bakoitzeko eremua 3 metro ere.

A. Kategoria: (5.968,80 m²)

4.A.1- Eskabetxeko biribilgunea eta inguruko oinezkoen babesguneak
4.A.2- Santa Engraziako biribilgunea eta inguruak
4.A.3- Muliateko biribilgunea
4.A.4- Jaizkibel Etorbideko biribilgunea
4.A.5. Amuteko biribilgunea

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Hondarribiko Udala

4.A.6. Jaizubiako biribilgunea

D Kategoria: (12.651,80 m²)

4.D.1- Gabarrariko biribilgunearen eta Santa Engraziako biribilgunearen arteko errepidea
4.D.2- Santa Engraziako biribilgunearen eta Muliateko biribilgunearen arteko errepidea
4.D.3- Muliateko biribilgunearen eta Jaizkibel Etorbidearen arteko errepidea
4.D.4. Amuteko biribilgunetik Jaizubiako biribilgunerainoko bidegorria
4.D.5. Jaizubiako biribilgunearen inguruko errepide guneak

Zonen AZALERA GUZTIRA: 181.770,10 m².

Neurketak egiterakoan, neurtutako azalera proiekzio horizontala da, eta ez egiazko azalera.

2.- LAN ANTOLAKETA: taldeak eta lanak

Esleipendunak eman beharreko zerbitzua zera da, ondoko lan multzoak betetzea, hiriko eremuetako berdegune guztietarako (ikusi xehetasunak **I ERANSKINEAN**, 23-27 orr.)

1.- Zaintza.
2.- Berlandatzea.
3.- Inaustea.
4.- Arbolak botatzea

Esleipendunak behean agertzen diren gutxieneko lanak bete beharko ditu denboran eta forman, bere langile, makina eta tresnekin; langileek, betiere, gaituta egon behar dute, ondorio guztietarako esleipendunaren ardurapean.

2.1.- ZAINTZA

Landare eta apainketa aldetik berdeguneak behar bezala egon daitezen lanak baldintza berezien arabera egingo dira; baldintza berezi horiek aurrerago daude azalduta, lan bakoitzerako. Lanak ondokoak dira:

2.1.1. Ureztatzea
2.1.2. Ureztaketa sarea eta instalazioak zaintzea.
2.1.3. Belarra moztea.
2.1.4. Zelaiberritzea.
2.1.5. Guraizeekin edo heskai-moztekoarekin moztea edo inaustea.
2.1.6. Ongarritzea.
2.1.7. Pasealekuetan hartxintxarra botatzea eta orraztea edo fintzea.

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

2.1.8. Aireztatzea.
2.1.9. Tarteak aitzurtzea eta jorratzea.
2.1.10. Arraztelua igarotzea.
2.1.11. Garbitzea.
2.1.12. Tratamendu fitosanitarioak egitea.
2.1.13. Heskaien eta belazeen ertzak zehaztea.
2.1.14. Oihanpeak garbitzea eta hostoak biltzea.
2.1.15. Hondakinak kentzea.

2.1.1. Ureztatzea.

Landareak noizbehinka edo egunero ureztatuko dira, hala behar duten urtaroetan, baldintza edafoklimatikoen eta dauden landare espezieen arabera, garatzeko lurrean behar adina ur izan dezaten

A. Kategoria:

- Zelaiak eta zelaiberritzeak.
- Garaiko landareak.
- Zuhaixkak, oro har.
- Zuhaitz gazteak edo landatu ondorengo 2 urte bitartekoak.
- Lorontziak

B. Kategoria:

- Zuhaitz gazteak edo landatu ondorengo urte bete bitartekoak.

C. Kategoria:

- Zuhaitz gazteak edo landatu ondorengo urte bete bitartekoak

Landareak ureztatzeko mahukak, ihinztagailuak edota tantaz tantakoak erabiliko dira. Landareak ureztatzeko garai onenak egunsentia eta iluntzea dira .

Ura Udalak ordainduko du eta esleipendunak ez du erabiliko behar baino ur gehiago. Halaber, ur hartuneak gaizki itxita daudelako edo beste edozein arrazoirengatik ura ez galtzeko erne ibiliko da, eta matxurak berehala konpondu egingo ditu.

Baldintza hori betetzen ez badu edo ureztaketa egokia ez bada (ur hartuneak gaizki itxita daudelako, adibidez) eta ondorioz ura galdu, lurra higatu edo beste edozein kalte gertatzen bada, esleipendunak bere kontura lehengoratuko du kaltetutako eremua. Orobat, galdutako ura ordaindu beharko du

2.1.2. Ureztaketa sarearen zaintza (halakorik denean)

Ureztaketa sarean sartzen dira lorategietarako bakarrik erabiltzen diren instalazioak.

Esleipendunaren kontura joango da ureztatze sistema jarduteko egoera onean egotea.

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Ureztaketa sareko edozein elementu ordezkatuko da pieza eta material berberekin;

Kontratistak beste material bat erabili behar dela irizten badio, udaletxean aurkeztu beharko du, baimena jasotzeko.

Esleipendunak ureztaketa sarea bere gain hobetu dezake, Udalak baimena emanez gero; hobekuntza horiek Udalarenak izango dira eta esleipendunak ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izango.

Udalak sare berriak ezarri edo daudenak hobetu ditzake, eta mantentze lana esleipendunaren kontura joango da.

2.1.3. Belarra moztea.

Belarra behar den guztietan moztuko da, luzatu eta lorategia ez itsusteko eta belazea ez kaltetzeko; belarraren luzera eremuen araberakoa izango da.

- **A Kategoria:** 8 zentimetrotik beherakoa.
- **B Kategoria:** 15 zentimetrotik beherakoa.
- **C Kategoria:** 30 zentimetrotik beherakoa
- **D Kategoria:** 75 zentimetrotik beherakoa

Eginkizun honen barrenen daude, era berean, soberan dauden produktuak garbitzea eta eskuaretzea.

Arbolen enborrak ez urratzearren, hauen oineko belarra mozteko **EZ dira INOIZ** segamakina edo esku-motosega erabiliko.

Erabilera horrengaitk urratzen diren arbola guztiak ordezkatu beharko dira esleipendunaren kontura.

2.1.4. Zelaiberritzea.

Zelaiek soilguneak, zulo edo higatutako lekuak badituzte, zelaiberritu egingo dira udazken hasieran edo udaberrian. Hona hemen zer egin behar den:

2.1.4.1. Lur begetala jarri behar den lekuetan.
2.1.4.2. Motokultorea pasa, metro koadroko 40-120 gramo ongarri mineral eta kilo bat ongarri organiko bota eta gero.

2.1.4.3. Eskuaretu, berdindu arte
2.1.4.4. Hazia erein.
2.1.4.5. Hazia estali hartzitutako lurrustelaz, 1 cm. lodi hartu arte.
2.1.4.6. Alperra pasa.
2.1.4.7. Ureztatu.
2.1.4.8. Alperra pasa, 5cm luzeko belarrarekin.
2.1.4.9. Belarra nahikoa ureztatu eta moztu, Udaleko Zerbitzu Teknikoek iritzi arte zelaiberritutako eremua lehengoratu dela.

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

2.1.4.10. Eremua erabat zelaiberritu bitartean itxiturak jarri.
2.1.4.11. Materiala eta haziak enpresa esleipendunaren kontura joango dira, udal Zerbitzu Teknikoen argibideen arabera.

2.1.5. Guraizeekin edo heskai-moztekoarekin moztea edo inaustea.

Landareek behar duten garai eta moduan egingo da, ahal bezain ondo hazi eta osatu daitezen.

A. eta B. Kategoria: Heskaiak, landare igokariekin estalitako hormak eta topiaria erako landare ertain eta luzeak (0,6 m baino garaiagoak): Kimu berriak ez dira sendotutako heskaia baino 7 cm handiagoak izango, sekula.

Heskai eta topiaria baxuak (0,6 m edo baxuagoak): Kimu berriak ez dira sendotutako heskaia baino 2 cm handiagoak izango, sekula.

C. eta D. Kategoria: Urtean behin mozketa bat egingo da, landareen sasoi begetatiboan

Hiru urtetik behin sendotutako heskai eta topiariak kimatuko dira otsailean, haien zabalera eta altuera murrizteko, hain zuzen ere jatorrizko neurria berreskuratzeko. Hori guztia Udal Zerbitzu Teknikoaren arabera.

2.1.6. Ongarritzea.

A. Kategoria: Zelaiak urtean bi aldiz ongarrituko dira, gutxienez, proportzio honetan: 1 kg./m² ongarri organiko edo 60 gr./m² ongarri mineral.

Zuhaitzak honela ongarrituko dira (A., B. eta C. lorategi kategorietan): landatzerakoan 10 kg./m3 ongarri organikoa ezarriz.

Zuhaixkak honela ongarrituko dira (A., B. eta C. lorategi kategorietan): landatzerakoan 3 kg./m.l ongarri lur organikoa ezarriz.

Loreak landatzerakoan, lurra ongarri organikoekin ongarrituko da: 2 kg./m2

Ongarri mota Udaleko Zerbitzu Teknikoak zehaztuko du eta enpresa esleipendunak emango du.

2.1.7. Tipologia honetako lekuetan orraztea edo fintzea eta pasealekuetan hartxintxarra botatzea.

Ertzak berregingo dira, ura normal ibil dadin, putzuak egin gabe, eta arekak eta estolda zuloak garbi-garbi egongo dira. Behar den materiala (herbizidak eta hartxintxarra, esaterako), Enpresa esleipendunak jarriko ditu Udaleko Zerbitzu Teknikoen argibideen arabera.

2.1.8. Zelaiak aireztatzea.

A Kategoriak: Bi urtetik behin behin gutxienez zelaietatik aireztagailu bat igaroko da,

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

eta ondoren ongarri edo hondar betegarria jarriko da. Betegarria ezarri baino lehen aireztatzearen ondorioz sortutako zatiak kendu edo zelaiaren gainean desegin behar dira. Ondoren alperra igaro eta ureztatuko da.

B Kategoria: Kontratu honen iraupenean behin egin beharreko lana da.

Materialak esleipendunaren kontura joango dira.

2.1.9. Tarteak aitzurtzea eta jorratzea.

A Kategoriako zelaietan belar txarrak bitarteko kulturalekin edo eskuz kenduko dira; herbizidak erabiliko dira, bakarrik, Udaleko Zerbitzu Teknikoak esaten duenean.

Lore, bizikorrak, estalgarriak, zuhaixka, heskai eta abarretako guneetan tarteak maiz aitzurtuko dira, belar txarrak ez ateratzeko eta lurraren egitura egokiari eusteko. Maiztasuna tokiko klimaren araberakoa izango da.

Zuhaixka eta zuhaitzak urtean bitan aitzurtuko dira, udaberrian eta udazkenean, sustraiak kaltetu gabe; sakonera: 12-15 zentimetro

Zuhaitz eta zuhaixkek enborraren inguruan 30 cm. neurtzen duen eraztun bana izango dute, belarrik gabea.

Herbizidak (GLIFOSATO erabiltzea galarazita dago Hondarribian) erabiltzerakoan baliabide, produktu eta prozedura moderno, eraginkor eta ez toxikoak erabiliko dira, pertsonak ere ez kaltetzeko modukoak.

Tratamendua emango da bizilagunei kalterik sortzen ez zaien orduetan. Beti ere, haizerik ez dagoenean. Dena den, produktu fitosanitario eta kimikoei dagokion legedia zorrotz beteko da une oro.

2.1.10. Garbitzea.

Esleipendunaren mendeko langileek zorrotz eta etengabe garbituko dituzte ezarritako perimetroaren barruko guztia (horrela eskatzen duten eremu bertikalak barne).

Kenduko dituzte berez jaiotzen diren landareak (belar txarrak); erortzen diren hostoak; belarra moztutakoan eta inausketa lanak egindakoak geratutako hondarrak; eta paperak, hondakinak eta zaborrak.

Aldi berean belar txarrak eta goroldioa kenduko dira une oro herriko txorko, espaloi, errepide bazter, galtzada harri, porlan edo galipot, eskilara, horma eta bazter guztietatik, baita aurreko ataletan aipatu ez diren eremuetatik ere, Udal Brigadako eskumenekoak diren lorategietan izan ezik. Helburua da herrian belar txarrik ez izatea, Landare Ondare Publikoa kaltetua suertatu gabe.

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Hondarribiko Udala

Horetarako behar diren tresna, gailu eta gaiak esleipendunaren kontura joango dira, eta Udalari erabili nahi dituen materia aktiboen berri emango dio, baita erabiliko duen estrategiaren berri ere, Zerbitzu Teknikoak onespena eman diezaion, beti ere kontutan izanik Hondarribiko Udalak onartu duela **GLIFOSATOrik EZ ERABILTZEA UDAL EREMU PUBLIKOETAN** (bai Hiri, Landa, Harresi, Ikastetxe, Puntala nola Portuko eremuetan)

Gainera iturri eta urmaelak garbi edukiko ditu, inguruan putzurik, paperik edo ur gaineko edo ur azpiko osagairik gabe. Ura husteko zuloak garbitu behar dira une oro ondo ibiltzeko, baita lorategiko isurbideak ere.

Esleipendunak, gai horiek erratzez garbitu, bildu eta pilatzeaz gain, berehala kendu ere egin behar ditu, dauzkan bitartekoekin; lan hori esleipendunaren kontura izango da.

Horrez gain, txorkoetako zaborrak kendu behar ditu.

Zaindu behar dituen berdeguneetan kultur, gizarte edo kirol jarduerak egiten badira (baita aparteko beste edozein jarduera ere), jarduerak hartzen duen lekuan berehala kalteak konpondu behar dira; horregatik esleipendunak ez du ordainsari handiagoa jasoko.

2.1.11. Tratamendu fitosanitarioak egitea.

Esleipendunak, gaixotasunak eta izurriak prebenitzeko tratamenduak egingo ditu, dagokienean; baita gaixotasunak eta izurriak desagerrarazteko tratamenduak ere. Tratamendu fitosanitarioak ematean baliabide, produktu eta prozedura moderno, eraginkor eta ez toxikoak erabiliko dira, pertsonak ere ez kaltetzeko modukoak.

Tratamendua emango da bizilagunei kalterik sortzen ez zaien orduetan. Beti ere, haizerik ez dagoenean. Dena den, produktu eta tratamendu fitosanitarioei dagokion legedia zorrotz beteko da une oro, eta produktu horiek erabiliko diztuzten langileek, nahi eta ez legeak agintzen duen titulazioaren jabe izanen dira.

Tresna, gaia fitosanitario eta biziak, edo dena delakoa, beharko diren baliabideak kontratatutako enpresaren kontura joango dira, aurretik erabiliko diren tratamenduetarako data, estrategia eta produktuei buruz Udal Zerbitzu Teknikoei galdetuta.

Aplikatu beharreko produktu kimikoak Nekazaritza Ministerioaren Produktu Fitosanitarioen Erregistroan sartuta egongo dira.

Enpresak ROPOn (Defentsa fitosanitarioko Baliabideen Ekoizleen eta Operadoreen Erregistro Ofizialean) **izena emanda egon beharko du** lizitazioa argitaratu aurretik, eta langileen artean arloko aholkulari bat izan beharko du.

2.1.12. Heskaien eta belazeen ertzak zaintzea.

Esleipendunak eutsi egin behar die heskaien ertz eta belazeen mugei. Berez aldatzen badira, jendeak kaltetzen baditu (haurrek, adibidez, jolasean) edo langileek beren lana behar bezala egin ez dutelako kaltetzen badira, konponketa esleipendunaren kontura izango da

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Zelai eremuen mugetan, zelaiak bideetan, bazterretan, heskaietan, zuhaitzen oinarrietan edo lore guneetan ez barneratzeko aldizka zelaiko belarra berdindu egingo da, eta soberan dagoen zatia ere kendu egingo da sustrai eta guzti.

2.1.13. Oihanpeak garbitzea eta hostoak biltzea.

Eremu bakoitzean dauden baso, zuhaixka, eta kanabera eremuak garbi edukiko dira hondar, zabor, sasi, egur hil, eta orbelik gabe, suteak eta izurriteak nagusitzea ekiditeko, hala neurri txikiko zuhaitzak zuhaixka geruza zainduko delarik.

2.1.14. Hondakinak kentzea.

Esleipendunaren kontura joango dira lorategi eta etorbide publikoak zaindu eta garbitzetik datozen hondakinak kentzeko lanak (belarra moztearen ondoriozko hondarrak, zaborrak, kimatzearen ondoriozko hondarrak, etab.), eta horrenbestez beharrezko baliabideak izango ditu lan hori egin eta ondoko tratamendua egiteko (ibilgailuak, makinak…), Hondakinak Kudeatzeko Planari jarraiki.

2.2.- BERLANDATZEA.

Garaiko landareek, landare bizikorrek, zuhaixkek, zuhaitzek eta zelaiek indarra galtzen badute, ordezkatu, berritu edo zelaiberritu behar dira, Esleipendunak jarriko du beharrekoz landarea aurretik berak aurkeztutako aurrekontua onartuta, eta Udal Zerbitzu Teknikoen argibideen arabera. Landatze lana egingo da Udal Zerbitzu Teknikoen ikusketa eginda eta oniritzia eman ondoren.

Lan horiek guztiak esleipendunaren kontura izango dira landareak kaltetzen edo hiltzen badira gaizki ureztatu eta moztu direlako eta landare berriak ez direlako behar bezala tratatu.

Kasu guztietan esleipendunak zuhaitz eta zuhaixka guztiak bi urtez bermatuko ditu landatzen den datatik zenbatzen hasita.

2.2.1. Zuhaitza eta zuhaixkak.

Hildako edo arriskutsuak diren zuhaitz eta zuhaixkak eta Udaleko Zerbitzu Teknikoak esandakoak bota egingo ditu kontratistak, duten neurria dutela, Zerbitzu Teknikoak agindu bezala. Halaber, zuhaitz horiek Udalak esandako zereginetarako erabiliko dira.

Esleipendunaren kontura joango dira hondakinak moztu, hondakindegira eraman eta birtziklatzeko lanak, ordezkatze lanak, edota zuhaitz berria jartzeko lanak berdeguneetan eta bere ardurapeko kaleetan.

Esleipendunak zuhaitzak eta zuhaixkak landatu behar ditu Udaleko Zerbitzu Teknikoak esan bezala. Zerbitzu horrek azalduko du, kasu bakoitzean, zer den egokia: babesak, zuzenketak, lur aldaketak, landaketa garaiak, e.a.

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

2.2.2. Lore parterreak.

Garaiko landareei dagokienez, landare berriak esleipendunak landatuko ditu (landare zaharrakendu eta eraman, lurra ongarritu eta landu, landatu, erregaditu,…), udazkenean eta udaberrian, lehen zeuden lekuan eta dentsitate berean, lore zotalak juntu-juntu landatuko direlarik. Ze espezie jarri behar den Udaleko Zerbitzu Teknikoak esango du eta landareak esleipendunak emango ditu. Zerbitzu Teknikoak, halaber, lore parterreak handitu eta txikitu ditzake, baita berriak sortu ere, eta horretarako lanak esleipendunaren kontura izango dira.

Zotaletan hazitako landarea erabiliko da bakarrik, homogeneoa, kalitatekoa ondo garatua eta adarduna, haritu gabea; loratua izan behar du, eta egoera sanitario bikaina izan behar du.

Bai lore-parterren azalera bai loreontzietako lore solteen unitateak baldintza-agiri honen I. eranskineko 2. puntuan zehaztuta daude.

Erabiliko diren konbinaketak eta espezieak eta landarearen kalitateak Udal Zerbitzu Teknikoen oniritzia izan behar dute landatu aurretik.

2.2.3. Zelaiak eta belardiak.

Berrituko da, gutxienez, Hiri-Portua eremuaren Ardatz nagusiko (Eskabetxeko biribilgunetik, Arrokako biribilgunea bitarte) azaleraren 1/10, zelaiberritzeari buruzko 2.1.4 atalean adierazi bezala.

Hazia esleipendunaren kontura joango da, eta Udal Zerbitzu Teknikoek adierazitako espezieak erabili beharko ditu.

2.2.4. Hondakinak kentzea.

Esleipendunaren kontura joango dira lorategi eta etorbide publikoetan berrezartze lanak egitearen ondoriozko hondakinak kentzeko lanak (belarra moztearen ondoriozko hondarrak, zaborrak, kimatzearen ondoriozko hondarrak, etab.), eta horrenbestez beharrezko baliabideak izango ditu lan hori egin eta ondoko tratamendua egiteko (ibilgailuak, makinak…), Hondakinak Kudeatzeko Planari jarraiki.

2.3.- INAUSTEA.

Inausketa garai egokian egingo da beti eta mozketak garbiak izan behar dute; moztutako adarrak diametro handia badauka, orbaintzailea jarriko zaio.

Honako hauek hartu behar dira kontuan:

a) Koniferak ez dira inausi behar, adarrei puntak moztu eta hildako adarrak kendu baizik
b) Adarren diametroa 10 zentimetro baino handiagoa bada, hobe da ez moztea; ezinbestean moztu behar badira, fungizida orbaintzailea jarri behar zaie moztu eta berehala.
c) Udaberrian loratzen diren zuhaitz eta zuhaixkak loratu eta berehala inausi daitezke
d) Udaran loratzen diren zuhaitz eta zuhaixkak neguan inausi daitezke

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

e) Hosto apaingarriak dituzten zuhaixkak eta milazkak udazkenean inausi behar dira
f) Topiaria erako landareak begetazio garaian inausi behar dira, ahal izanez gero, eta adartxoren bat 2 zentimetro ateratzen bada
g) Inausketa egingo da landareak ahalik eta gehien aireztatu eta eguzkitzeko.
h) Behin betiko kentzen diren adarrak oinarritik moztu behar dira, adarraren lepoa errespetatuz.
i) Moztutako egurra zatitu eta lotu ala makina birrintzaileaz txehetu egin behar da eta baimendutako zabortegira, ala Udalak esandako tokira garraiatuko dira, beranduenik moztu eta hurrengo egunean, Hondakinen Planari jarraiki
j) Hildako adarrak eta zati lehorrak kendu egin behar dira inausketa lanetan.
k) Zuhaixketako eta garaiko landareetako lore ustelak kendu egin behar dira, baldin eta fruitu apaingarriak ez badituzte.

Hiru inausketa mota daude:

- Osatzekoa
- Zaintzekoa
- Gaztetzekoa

Osatzekoa.- Zuhaitz gazteei eta landatu berriei egiten zaie, egitura sendoa, ahal dela erdi aldeko ardatza duena, eta gainerako landareak eusteko modukoa lortu arte.

Zaintzekoa.- Zuhaitzaren bereizgarriei (itxura, loratzea, e.a.) eusteko egiten da, dagoen lekuko mugak kontuan hartuta. Era berean, adarrek oinezkoen edo ibilgailuen trafikoa ez eragozteko egiten den inausketa da, eta itzal eremu handia ez sortzeko egiten dena ere bai. Kale, etorbide eta umeen jolastokiko eremuetan behar adina aldiz inausiko dira urtean zehar adarrak: oinezkoen trafikoko eremuetan 2,00 metrotik behera dauden adarrak, eta ibilgailuen trafikoko eremuetan 4 metrotik behera dauden adarrak. Gainera enborretik edo zainetatik sortzen diren adar zupatzaileak ere inausiko dira (batez ere Tamarix zuhaitzetan) 10 cm. neurtu ahala.

Zuhaitz handietan adar ido edo arriskutsuak kenduko dira Udaleko Zerbitzu Teknikoek egokia deritzoten guztietan.

Gaztetzekoa.- Hildako adarrak kentzeko eta zuhaitza aireztatzeko egiten da; ez da egingo “terciado”-rik edo azken urteko adar guztiak kendu, udal Zerbitzu teknikoek aurkakoa diotenean izan ezik.

Inausketa lanak egingo dira Udal Zerbitzu Teknikoek adierazitakoaren arabera espezie, toki eta egoera bakoitzari dagokionez.

Inausketa lanak egingo dira urteko inausketa planaren arabera. Plan hori esleipendunak aurkeztu behar du urtero, udal teknikariek onar dezaten.

Inausteko erabiltzen diren tresnak egunero desinfektatu behar dira.

Zurkaitzetako loturak urtero eta behar den guztietan begiratuko dira eta hautsita edo ustelduta dauden zurkaitzak kendu eta berriak jarriko dira. Zurkaitzak eta loturak esleipendunak emango ditu Udal Zerbitzu teknikoen argibideen arabera, eta Udalak ikuskatuko du, era berean, ondo jarrita daudela.

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Hondarribiko Udala

Esleipendunaren kontura joango dira lorategi eta etorbide publikoetan inauste lanak egitearen ondoriozko hondakinak kudeatu eta kentzeko lanak, eta horrenbestez beharrezko baliabideak izango ditu lan hori egin eta ondoko tratamendua egiteko (ibilgailuak, makinak…), Hondakinak Kudeatzeko Planari jarraiki.

2.4.- ARBOLAK BOTATZEA

Ondoko zuhaitzak moztu egingo dira: arriskutsuak direnak, beste zuhaitzetatik oso hurbil daudenak eta garapen egokia oztopatzen dutenak, edo ibilgailu eta pertsonen joan -etorria oztopatzen dutenak. Baita Udal Zerbitzu Teknikoak moztea egoki ikusten dutenak.

Mozketa egin aurretik, **Zerbitzuko Ingeniari Teknikoak (enpresa esleipendunarenak) mozketa justifikatzeko txosten bat egin beharko du**, non, besteak beste, alearen arriskugarritasuna egiaztatuko den.

Esleipendunaren kontura joango dira bere ardurapeko eremuko zuhaitza moztu eta hondakinak kendu eta tratatzeko lanak (Hondakinak Kudeatzeko Planaren arabera, non eta Zerbitzu Teknikoek ez badute beste xede edo erabileraren bat adierazten) baita motzondoak kendu edo birrintzeko lanak ere eta berdeguneetan zuhaitzak ordezkatzeko edo berriak jartzeko, lurrak berdindu eta belarra ereiteko lanak ere.

3.- AURREIKUSI GABEKO LANAK.

Aurreikusi gabeko lanak hauek dira: bat-batekoak, lehiaketa honen xede diren goian aipatutako esku-hartze eremuetatik kanpo egin beharrekoak ere. Lanak hauek dira:

3.1. Klimatologi egoera bereziak direla-eta eroritako zuhaitzak edo adarrak kentzea.
3.1. Zuhaitza presaz birlandatu behar izatea.
3.3. Suteak
3.4. Uholdeak.
3.5. Lur higadurak
3.6. Zuhaitzen goi aldea inaustea: Atal honetan daude ondoko zuhaitzen goi aldea inausteko lan zehatzak.

- 10 metrotik gora neurtzen duten zuhaitz handiak inaustea, material, makinaria, eta langile bereziak behar dituztenean; lan horiek neguko atseden aldietan egingo dira Udal Zerbitzu Teknikoen zuzendaritzapean.

3.7. Zuhaitzen moztea: Atal honetan daude ondoko zuhaitzen mozteko lan zehatzak.

- Zuhaitz handiak (10 m. baino handiagoak moztea, material, makinaria, eta langile bereziak behar dituztenean; lan horiek egingo dira Udal Zerbitzu Teknikoen zuzendaritzapean.

3.8. Zuhaitz handiei tratamendu fitosanitarioak ematea: Atal honetan daude ondoko zuhaitzen tratamendu fitosanitarioak emateko lan zehatzak:

- Zuhaitz handiei (5 m. baino handiagoak) tratamendu fitosanitarioak ematea , material, makinaria, eta langile bereziak behar dituztenean; lan horiek egingo dira Udal Zerbitzu Teknikoen zuzendaritzapean.

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

3.9. Landatze berriak: Landatze berriak hauek dira: lorategi berriak egiteko zuhaitz, zuhaixka eta bizikorrak, langile berezitua behar baldin badute.

3.10. Jabetza pribatuko landaredia inausi edo moztea eta kentzea, eremu publikoan sartzen badira edo arriskua sortzen badute:

- Jabetza pribatuko zuhaitzak moztea edo inaustea
- Pertsona edo ondasunentzat arriskutsuak diren zuhaitzak
- Espaloietan, errepideetan edo eremu publikoetan sartzen diren heskai partikularrak.
-

3.11. Aurreikusi gabeko bestelako lanak.

- Ekitaldi publikoetan laguntzea edo zerbitzua ematea, bai kultur nola kirol arlokoetan, bai bestelakoetan.
- Kirol eremu publikoen mantentze lanetan noizean behin laguntzea.
- Udal Brigadak daraman eremua mantentzen laguntzea zerbitzuak hala beharko balu.

Egoera hauei aurre egiteko makinaria eta eskulan tarifa/orduko proposatuko da, eta horren arabera jokatuko da aurreikusi gabeko egoera horietan.

4.- ESKU-HARTZE AZALERAREN BALORAZIOA

Esleipendunak onartu beharko du zainduko dituela sortutako zenbait berdegune berri eta arboladi, hain zuzen ere obra berriak, handitzeak, jasotzeak edo eskuratzearen ondorioz esku-hartze eremua handitzen denean, eta esleipenaren gainontzeko baldintza beretan.

Kanon orokorra aldaezina izango da urte osoan zehar, salbuespenik gabe, nahiz eta esku-hartze eremua handitzen den berdegune, jardinera, edo zuhaitzei dagokienez goian aipatutako edozein arrazoi dela-eta.

Urtero handitu egingo da kontserbaziorako urteko kanona, aurreko urtean sortutako berdegune berriekin eguneratuz eta dagokion sailkapena eginez; aplikatuko dira esleipendunak eskainitako mantentze lan bakoitzaren esleipen prezioak, hazkundea gertatu deneko hurrengo urtetik bakarrik izango duelarik eragina.

Zaindu beharreko azaleraren kalitatea hobetu edo handitzearen ondoriozko kanon hazkundea dela-eta, esleipendunak makinaria eta langile kopurua handitu egin beharko du, baina hasieran eskainitako m2/langile ratioa ez handitzeko moduan kontratua indarrean dagoen bi urteetan. Kanon hazkunde barri bakoitzean zuritu beharko ditu langile berriak eta zerbitzuari atxikiko zaion makinaria.

Zaindu beharreko azalera berri bat jasotzerakoan enpresa esleipendunak txosten bat aurkeztuko du, zabalduko den osagai eremuari buruzkoa; era berean planoa, azalerak, ezaugarriak eta inbentarioa aurkeztuko ditu. Agiri honek zehaztuko ditu esleipendunak jaso zueneko datan dauden akatsak, eta behin egiaztatuta oinarri izango da lanak garatzerakoan sor litekeen edozein auzi ebazteko. Txosten horiek oinarri izango dira urteko kanona kalkulatzeko.

Enpresa esleipendunak ezin izango dio inoiz eta ezergatik uko egin azalera berri horiek zaintzeari, nahiz eta jakin haiek duten egoera ez dela onena eta egokiena, bai egiterakoan akatsak izan direlako edo bai lehen ezegoki zaindu zirelako.

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Hondarribiko Udala

Zaindu beharreko berdegunea murrizten bada, dagokion abisua eman aurretik zaindu gabeko azalerari dagokion murrizketa ekonomikoaren espedientea egingo da.

5.- OBRA BERRIAK ETA HOBEKUNTZAK

Udalak askatasun osoa izango du zaindu beharreko berdeguneetan obra berriak eta hobekuntzak egiteko, eta ez da horien ondorioz kanon hazkunderik izango, beti ere eskatutako zaintze mailan aldaketa handirik sortu ez bada.
Loregune berriak, larre berriak, eta zuhaitz nahiz zuhaixka berriak sortu ahal izango dira. Gainera, ibilbideetako zoladura aldatu ahal izango da eta obra berriak egin ahal izango dira, besteak beste ureztatze instalazioak, etab.

Esleipendunak ezin izango du zaindu beharreko osagaien egitura aldatzen duen obra berririk edo hobekuntzarik egin, Mantenimenduko Zerbitzuaren berariazko baimenik gabe.

6.- ZERBITZUAK EMATEKO KONTROLA

Hiri Mantenimenduaren Zerbitzurako Udal langile teknikoek beharrezko ikusketak egingo dituzte zerbitzua ondo dabilela egiaztatzeko; hala, esleitutako zerbitzuen prestazioa aztertu eta kontrolatuko dute, Plegu honetako zehaztapenen arabera. Hartarako, ikusketa lana egingo du egokia deritzon antolakuntzarekin, baina esleipendunari jakinaraziko dio zein pertsonak izanago duten harreman zuzena enpresarekin.

Ikusketa lana egingo duten udal langile teknikoek esleipendunaren lokal eta bulegoetara joateko aukera izango dute egiaztatzeko zerbitzua kontratu honen arabera burutzen dela, eta bere eginkuzinak betetzeko beharrezko datu guztiak emango dizkiote.

Ikuskatzailearen eginkizunak hauek izango dira:
- Zaintzea lanak egoki eta pleguan ezarritako moduan egiten direla.
- Egiaztatzea ea pleguan adierazitakoa eta esleipendunak langileen kopuru eta kalifikazioari buruz ondoren hartutako konpromisoak betetzen diren.
- Zehaztea ea lanak egiteko dauden ekipoek, makinek eta tresnek Plegu honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten eta esleipendunak eskainitakoarekin bat datozen.
- Begiratzea ea esleipendunaren plantilari atxikiak diren aldagelek eta komunek eskatutako baldintzak betetzen dituzten.
- Hitzarmen lana zuzentzeko eta, kontratako langileen jendearekiko jokaera ezegokia zuzentzeko ekintzak eta espedienteak proposatzea.
- Ur kontsumoa fiskalizatzea, ahalik eta egokituena izan dadin beharrezko ureztatzeetarako, hartarako beharrezko murrizketa neurriak proposatu beharko dituelarik, esleipendunak bete beharreko araua izanik.

Ikusketa horien emaitzak ikusita erabakiko da lanen antolaketan egokiak ikusten diren zuzenketa edo aldaketak.

Ikuskaritzak hartutako erabakiak islatuko dira Agindu Liburuan eta berehala beteko dira, edo dagokionean, ezartzen den epean.

Esleipendunak astero eta adierazten den orduetan enpresako teknikari bat eramango du Zaintza Zerbitzuko Bulegoetara, zerbitzua hobeto betetzeko beharrezko argibideak jasotzeko.

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Hondarribiko Udala

Egindako lan planeko asteko aurrerakin bat aurkeztuko da, eta bertan aurreikusitako langileak, ibilgailuak eta baliabide mekanikoak azalduko dira eta epe horretarako aurreikusitako egoera eta eginkizunak zehaztuko dira, egiaztatze egokiak errazteko; horren osagarri, astea bukatuta aurreko astean egindako lanen partea aurkeztuko da. Parte horietan argi adieraziko da zein osagaitan eragin den, zein lan egin diren eta zeinek egin dituen.

Era berean, osagarri gisa, esleipendunak aurkeztu beharko ditu adierazten zaion aldiro kontratatutako zerbitzuak kontrolatzeko Mantentze Zerbitzuak egokiak ikusten dituen egiaztagiri, txosten, azterketa, argazki erreportaje, eta gainontzeko guztiak.

Esleipendunak hilabete bakoitzeko lehenbiziko astean Zerbitzura atxikitako langileen lan egoerari buruzko laburpen bat aurkeztuko du, baita suertatutako istripuaren ondoriozko bajak, oporrak, gaixotasunak, etab., eta gertatutako ordezkapenak aurreko hilabetean izandako beste edozein aldaketa.
Enpresa esleipendunak nahitaez Mantentze Zerbitzua gertatutako edozein ezohiko esku-hartzeren jakinaren gainean jarriko du berehala, baita ohiko jardunean berak esku-hartzea beharrezkoa duen edozein gertaeraren jakinaren gainean ere (ohikoa nahiz ezohikoa izan).

7.- ABISUEI ERANTZUTEA

Esleipendunak jaso ondorengo 7 egunetan gehienez konpondu beharko ditu Mantentze Zerbitzuak adierazten dizkion abisu eta kexak (epea handitzeko Hiri mantentze Zerbitzuarekin akordio puntual bat dagoenean izan ezik), eta Zerbitzu horri adierazi beharko dio zein data zehatzetan konpondu den arazoa, Zerbitzuak adierazitako eran.

8. - LANGILEAK

Esleipendunak zaintza lanak behar bezala egiteko behar adina langile edukiko ditu; dena den, gutxieneko langile kopuru bat izango du (langile zuzenak: 8 lagun), eta langileria hori erabat azalduta eta zurituta egongo da eskaintzan; ordezkoak jarriko ditu langileak baja, baimen eta oporretan daudenetan, eta Mantentze Zerbitzuari jakinaraziko dio berehala aldaketaren bat egonez gero.

Agiri honen II. eranskinaren arabera, 8 langile horietatik 7 subrogatu egin behar dira. Taldea osatzeko eskatzen den zortzigarren langileak baldintza hauek bete beharko ditu:

Nahitaez egiaztatu beharko du lorezaintzako, paisaiako edo antzeko erdi-mailako Lanbide Heziketako titulazioa duela, kontratuaren garapenarekin lotuta. Langile horrek ezingo du 3 urtetik gorako antzinatasuna izan enpresan. Hautagaia aldez aurretik proposatuko da Udaleko Zerbitzu Teknikoen aurrean, eta lantaldean sartzeko hauen oniritzia izan beharko du.

Baldintza horiek aplikatuko zaizkie lehiaketa hau indarrean dagoen bitartean zerbitzuan sar daitezkeen langile berri guztiei.

Eskaintzan zerbitzuaren organigrama azalduko da argi eta garbi, eta bertan zehaztu beharko dira plantila, bere kualifikazioa, betetzen diren lanpostuak, eta eginkizun bakoitzari egokituko zaion zerbitzua hobeto zehazteko ordutegia eta bestelako gainontzeko egoerak; Eginkizun horiek zaintza orokorrak dira.

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Hondarribiko Udala

Esleipendunak une oro baldintza pleguko zehaztapenak bete behar dituenez, eskainitako langile eta baliabideekin ez badu eskatutako hitzarmeneko kalitatearekin zerbitzua betetzen, baliabide kopurua handitu egin beharko du, bere eskaintzako prezioak handitu gabe.

Zerbitzuko ordezkaria:

Zerbitzuaren ordezkari gisa erdi-mailako teknikari tituludun bat egon beharko da Nekazaritza, Basogintza, Lorezaintza (Nekazal Ingeniari Teknikoa, Basogintza, Mendiak) eta parke eta lorategien kontserbazioaren arloko prestakuntza adarretan, eta elkargokide izan beharko du. Zerbitzu teknikoek eskatutako txosten ofizialak idaztea izango du eginkizun, besteak beste. Txosten horiek euskaraz edo elebitan idatzita egon beharko dute.
Teknikari horrek gutxienez 3 urteko esperientzia egiaztatu beharko du agiri honetan jasotako antzeko lanetan, bolumenari eta konplexutasunari dagokienez.

Zerbitzuburua

Langileen eta zerbitzuaren eguneroko kudeaketaren buru gisa, enpresak zerbitzuburu kategoriako solaskide bat aurkeztu beharko du. Solaskide horrek 3 urteko esperientzia frogatu beharko du, gutxienez, antzeko ezaugarriak dituzten kontratu publikoetan, eta gaitasuna izan beharko du bere eginkizunak betetzean sortzen diren arazoak konpontzeko. Lorezaintzako lan zehatzak teknikoki zuzendu beharko ditu, bai eta dituen arduradunei laguntza teknikoa eman ere. Udalak egiten dizkion errekerimenduetara joan beharko du, aitzakiarik gabe, eta kontratatutako prestazioei buruz hartzen diren erabakiak hartzeko ahalmen nahikoa izango du, eta prestazio horiek ezin izango ditu ukitu legezko edo formazko erabaki-gaitasun faltagatik. Solaskide baliodun bakarra izango da kontratuari buruzko gai guztietarako, eta bere ohiko lan-ordutegitik kanpo zerbitzua eman beharko du Mantentze Zerbitzuak hala eskatzen dionean beharrezkoa dela uste duenean.
Administrazioarekin dituen ahozko eta idatzizko harremanetan, euskara izango da erabili beharreko hizkuntza; beraz, zerbitzuburuari erreferentziako Europako Esparruko B2 gaitasun-maila eskatuko zaio (administrazioko 2. He baliokidea).

Enpresa lizitatzaileen urteko eskaintzetan dauden urteko egitarauetan zera zehaztuko da, egin beharreko lan bakoitzean beharrezkoak ikusten dituen plantila aurreikuspenen eskaintza zehatza.

Mantentze Zerbitzuak eskatzen dion aldiro plantila egiaztatzeko eta eginkizun bakoitzeko arduradunak identifikatzeko informazioa emango du esleipendunak.

Mantentze Zerbitzuari jakinaraziko zaizkio Plegu honek adierazitako eginkizunak betetzeko teknikarien eta gainontzeko langileen izen, lan kategoria eta gainontzeko egoera pertsonalak, baita gertatzen diren aldaketak ere; Zerbitzu horrek proposatu ahal izango du kontrata honen xede den zerbitzurako egokia ikusten ez duen teknikari eta langile aldaketa.

Lehenbiziko jakinarazpena kontratuaren hasieran egingo da, eta gainontzekoak aldaketak gertatzen direnean.

Esleipendunak kontratua indarrean dagoen bitartean eta kontratua hasi zeneko plantilan aldaketaren bat dagoen guztietan horren berri emango dio udalari, eta gertatzen diren lanpostu aldaketak bete beharko ditu; aldaketak egoera hauek sortuak izan daitezke: erretiroa, heriotza, borondatezko baja, kaleratzea, aldi bateko lanerako ezintasuna, lanerako ezintasun iraunkorra, etab.

Udalari galdetu beharko zaio langileriaren kategoria aldaketarik edo berritzerik baldin badago, eta kontrata honen xede den lanerako egokitzat jotzen ez diren langileak aldetzea proposatu ahal izango da, baita zehapen jakinen bat ezartzea ere hartarako arrazoirik baldin badago.

ESKU5b0a0632-ff15-48b4-814a-35e9e57039f3

Lehiaketaren xede den zerbitzu bere gain hartzerakoan esleipendunak hartuko ditu bere gain aurreko esleipendunaren plantilan dauden langile guztiak.

Esleipendun berriak nahitaez onartu beharko ditu lizitazioaren unean indarrean dauden aurreko esleipendunarekin zituzten lan eskubide eta betebehar guztiak, eta hala lanaren babeserako legeek eta gizarte segurantzak ezarritako alderdi guztiak bete beharko ditu. Lizitatzaileek ezagutu ahal izango dituzte gaur egungo plantila eta gaur egun indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa. Dagokion azterketa egiteko, **II Eranskinean** (31. or.) sartuta dago zerbitzu honi gaur egun atxikia den langileriaren zerrenda, bertan ageri direlarik egoera, kualifikazioa eta antzinatasuna.

Enpresa esleipendunaren langileek ez dute inoiz lan, hitzarmen edo bestelako harremanik izango Udalarekin, eta enpresa horrek horren jakinaren gainean jarriko ditu langileak.

Langile guztiek uniformea eta nortasun txartela izango dute; eskaintzan erabat zehaztuko da eginkizun bakoitzerako zein ekipo eta uniformerekin hornituko diren langileak, baita ehunen forma, kalitatea eta kolorea eta noizero eta zein datatan banatuko diren. Zentzu horretan zehaztuko da zein izango diren udako, neguko eta euritarako uniformea langile, arduradun eta gidarientzat eta zein den segurtasun pertsonalerako ekipoa. Dena den, uniforme modeloa Mantentze zerbitzuak onartu beharko du, eta egokiak irizten diren aldaketak egin ahal izango dira.

Une oro uniformeak egoera onean izango dira, eta esleipenduna izango da janzterakoan garbitasun edo egokitasun ezaren erantzule, baita herritarrenganako jokaera ezegokiena ere. Era berean, bere ardura izango da langileek jarduera mota honetarako indarrean dagoen legedian aurreikusitako babes pertsonalerako baliabideak izan eta erabiltzea.

Kontratak bere agindupeko langile guztiak segurtasunerako eta istripuak prebenitzeko indarrean dauden beharrezko segurtasun osagai guztiekin hornitu behar ditu, eta esleipendunak beharrezko neurriak hartu behar ditu langileek osagai horiek erabil ditzaten; hala, enpresa esleipendunaren kontratak bakarrik izango du lan istripuen erantzukizuna.

Argi gutxi dagoenenean bide publikoan lan egiten duten langile guztiek material islatzailea eramango du, indarrean dagoen araudiak dioenaren arabera.

Larrialdi egoerak sortzen dituzten uholde, elurte, lurjausi, edo antzeko ezohiko egoerak suertatuz gero esleipendunak Hondarribiko Udalaren esku jarriko ditu material eta giza baliabide guztiak Babes Zibileko Zerbitzuen Laguntzarekin ahalik eta denbora laburrenean egoera horien ondorioak murrizteko.

9.- <u>IBILGAILUAK, MAKINARIA ETA TRESNAK</u>

Eskaintzaileek argi eta garbi adierazi behar dute ze ibilgailu, makina eta tresna erabiliko dituzten zerbitzuan, egokitutako lanak behar bezala egiteko.

Esleipendunak zehatz-mehatz adieraziko du lan bakoitzerako ze ibilgailu eta makina erabiliko dituen, baita zenbat erabiliko dituen ere. Alde horretatik, erreserbak eduki behar dituzte, lanak ez atzeratzeko.

